

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI SAHARA

Frente Polisarioa sortu zela ospatzen

Saharako diasporako Frente Polisarioaren sorreraren urteurrena ospatuko du larunbatean, Atsegindegin, 13:00etatik 19:00etara. Jakiak eta dantza saharauia egongo dira. ||

■ HERNANI ZINEA

'Napardeath', aurrestreinaldia

Napardeath pelikularen aurrestreinaldia egongo da Hernanin larunbatean eta horrekin batera festa ere antolatuko dute. Biterin eskainiko da 19:00etan eta ondoren, 20:30etan hasiko da festa. Biak doakoak. Filmaren partehartzaile guztiak bertan egongo dira. *Ataun Of The Dead* trilogiaren azken atala da estreinatuko dena. ||

■ HERNANI CATAN

Catan Txapelketa, maiatzaren 11n

Maiatzaren 11n Catan mahai jolasaren txapelketa ofiziala antolatuko du Gaueko Komiki dendak. 16:30etatik aurrera hasiko da. gauekomik@gmail.com helbidean, Gauekon edo 943 57 78 90 zenbakian eman daiteke izena. Irabazlea Madrilen, uztailaren 6an, jokatuko den Espainiako txapelketa sailkatuko da. Egun berean Doako Komikiaren Eguna ospatuko dute. ||

■ ASTIGARRAGA
ERRALDOIAK

Iruñeako erraldoi eta kilikiak

Iruñeako lau erraldoi eta lau kilikiak Astigarragara etorriko dira larunbatean. Astigarragako Txirriskla txistulariekin batera elkartuko dira Foru Plazan, 12:30etan. ||

■ ASTIGARRAGA
MUSIKA ESKOLA

Ate irekien jardunadia

Astigarragako Musika Eskolako ate irekien jardunaldia antolatu du larunbaterako. Goizean kontzertuak antolatu dituzte. ||

■ URUMEA MAIATZAK 1

Langileen eguna, erreibindikazio eguna

Sindikatu desberdinek manifestazio eta mobilizazioak antolatu dituzte Euskal Herriko hiriburuetan. Donostian CCOO eta UGTk 12:00etarako dute deitua eta gazteek 13:00etan, Bulebarretik.

NAZIOARTEKO Langileen Eguna gaur da eta erreibindikazio eguna izaten da mundu mailan, baita Urumea bailaran ere. Hernaniko Gazte Asanbladak ekitaldi desberdinak antolatu ditu egunaren bueltan eta gaurko deialdia egin dute Donostiako Bulebarrean egingo de manifestaldirako 13:00etan.

ELA eta LABek bakoitzak bere aldetik bina egingo dituzte; Bilbon, Baionan eta Iruñean Sindikatuek ere deitu dute mobilizaziora. ELAK eta LABek bakoitzak bere aldetik ospatuko dute. Hala, ELAK Bilbon (11:45ean, Jesusen Bihotza) eta Iruñean (12:00etan, Gurutze Plaza) manifestazio bana egingo du *Bizitza da lehena* lelopean. LABek ere deialdi bi-



Pasa den urtean Hernanin egin zen manifestazioa.

koitza egin du. Alde batetik, Baionan (11:00etan, Santa Ursula plaza) CGT sindikatua erekin eta beste eragile batzue-

ekin batera manifestazioa egingo du, eta bestetik, Iruñean (12:00etan, Gaztelu plaza) egitaraua prestatu du egun

osorako. Euskal Herriak erabaki. Kapitala hautsi, bizitzari eutsi lelopean.

CCOOK eta UGTk, deialdi bateratua

CCOOK eta UGTk, aldiz, deialdi bateratua egin dute. EAEn, manifestazio bana egingo dute Bilbon (11:30etan, Jesusen Bihotza), Donostian (12:00etan, Alderdi Eder) eta Vitoria-Gasteizen (12:00etan, Andre Maria Zuriaren plaza). *Pertsonak aurretik* goiburua aukeratu dute aurten. Nafarroan, Iruñean egingo dute manifestazioa (12:00etan, antzinako autobusen geltokia).

Sindikatu nagusietatik aldentuta, Steilas, ESKe lau hiriburuetan egingo dituzte mobilizazioak eta LSB-USO sindikatuak Bilbon. ||

■ ASTIGARRAGA

Santiomendiko hiritartze proiektua ogasun batzordera aurkeztuko da

Astigarragako Udalak euri urentzako saneamendu eta argizteritza sareak berrituko ditu, baita kaxkoko zoladura, sarreratik Bustieta arte. Bihar eramango du batzordera hiritartze proposamena.

ASTIGARRAGAKO Gobernu taldeak bere «lehetasunen artean Santiomendi auzoaren erreabilitazioa dago». Horregatik, bihar, ogasun batzordera auzoaren hiritartzea aurkeztuko du. Memoriak, helburu nagusi ditu euri urentzako saneamendu sarea berritzea eta argizteritza, baita zoruaren berrikuntza ere.

Astigarragako Udalak «zenbait lan egin ditu Santiomendi auzoan azken urteetan. Hala ere, oraindik azpiegitura gehienek berrikuntza dago egiteko eta, batez ere, zolaketa lanak».

Memoriak, jarduera desberdinak aurreikusten ditu. Euri urentzako saneamenduaren inguruan; behe aldeko zati bat berrituko da eta ur kolektorea

goiko aldean. Azpiegitura ere egingo da argizteritza berritzeko etorkizunean, lurperatutako hodiak eta argi puntuentzako oinarriak jarritz. Azkenik, Santio Zeharreko bidearen tarte bat asfaltatuko da.

UPV-EHurekin hitzarmena Orain hilabete batzuk, Astigarragako Udalak Euskal Herriko

Unibertsitatearekin hitzarmena sinatu zuen. Arkitektura eskolarekin. Bosgarren mailako arkitektura ikasleek Santiomendi balioan jartzeko lanean aritu dira. Proiektuak Santiomendiren paisaiaren oraina eta etorkizuna du izenburu eta udaletxeko paneletan dago jasota proiektua maiatzaren 10era arte. ||

oialume zar
sagardotegia
www.oialumezar.com
Mikel Arazamena 16, ASTIGARRAGA tel. 943 55 29 38

Gaur itxiko dugu aurtengo txotx denboraldia
**Eskerrik asko beste behin ere,
gurera etorri zareten guztioi!**

ESPECIALISTAS EN MARISCOS
MARISCOS HERNANI

Javier Juaristi
609 674 344
Kale Nagusia, 20 - 20200 Hernani
943 555 156
mariscos hernani

DORRONSORO
OINDEGIA

Ogi egin berria
beti zure eskura

Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jaiegunetan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jaiegunetan: 7:00-14:00



GAUR Egunaren lehen partean giro eguzkitsua izango da eta giroa ere nahiko goxoa izango da. Alabaina, eguerditik aurrera gero eta laino gehiago ikusiko da eta lainotzera egingo du. **Min.8° / Max.18°**



BIHAR Ipar isurialdean behe-laino dezente izango da eta tarteka euri bikia edo zimuria egingo du. Ipar-osagaiko haizea ibiliko da eta tenperatura maximoa jaitsiko da. **Min.10° / Max.15°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Alzpuru** Latsunbeberri, 11 (Hernani) **943 336077** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

FUTBOLA



Hernanik berdindu egin zuen Realaren kontra finalerdian eta penaltietan finalera pasa zen.

Hernanik Labaien Torneoan garaipen haundia lortu du

Labaienen orimenezkoan balentria egin zuen Hernaniko Liga nazionaleko jubenil taldeak. Txapelketa irabazi zuen finalean Zaragoza 3-1 garaitu eta gero. Gainera, finalera Reala kanporatuta iritsi zen, penaltietan 4-3 gairidituta txuriurdinak. Tomeoko jokalarari onenaren saria Nicolas Betes Zaragozako jokalarari eman zuen. Eibar izan zen txapelketan parte hartu zuen beste taldea, hirugarren sailkatuz. Goizean jokatu ziren finalerdiak eta Txantxangorri elkartean bazkaldu eta gero jokatu ziren 3garren eta laugarren posturako lehia eta finala. Azken partiduan hernaniarrek ezusteko eta poz galanta eman zieten zaletuei. ||

ARANO-GOIZUETA UDALA

Helpbidearen inguruan bilerak egingen dira Goizuetan eta Aranon

Biharko daude deituta Aranoko udaletxean, 17:30etan, eta Goizuetako udaletxean, 19:30etan, baserri eta etxe urrunduetan bizi direnak.

HELPBIDEAREN berri zuzenean jakiteko bilera egingen da Aranoko eta Goizuetako Udaletxeetan bihar. Aranon 17:30etan eta Goizuetan 19:30etan egingen dira. Baserriar edo etxebizitza sakabanuetako jabe edo bizilagunak etortzea komenigarria da guztiz.

Zer da Helpbidea? Larrialdi baten aurrean larrialdi zerbitzuei irisgarritasuna errazteko sistema da.

Nafarroako Gobernua (Suhiltzaileak, Osasun Saila, Foruzaingoa, Babes Zibila eta Informatika) eta Tracasa enpresa publikoarekin elkarlanean aritu dira sakabanatutako etxebizitza hauek lokalizatzeko modu egoki baten bila. Horrela ondorioztatu dute, arazo honi aurre egiteko modurik onena, etxebizitza bakoitzarentzat *Helpbidea* izeneko identifikatzaile bat erabiltzea dela, hau da, zonaldeko edozein eraikuntzari nolabaiteko

NAN zenbaki bat egokitzea. Helpbidea identifikatzailea ez da denboran zehar aldatuko, eta larrialdi zerbitzuek eza gutzen dute.

Baserri eta etxe urrundu bakoitzean plaka identifikatzailea

Goizeta eta Aranoko Udalek, identifikatzaile hauek lortu eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz, plaka batzuk egin dituzte beren herrietako baserri eta etxebizitza sakabanatuetan jartzeko. Etxebizitza bakoitzean, bere identifikatzailea eramango duen plaka jarri beharko da, hortaz, Udalak ezarriko duen irizpidea jarraituz, beti ere leku ageriko batean, larrialdi zerbitzuek hauek ikusi ahal izango dituzten eran.

112 zenbakira deitu eta kodea jakinarazi

Herritarrek, 112ra deitzeare-

kin, kode hau jakinarazteko ohitura hartu beharko dute hemendik aurrera, euren larrialdia jakinarazterakoan. Kode hau gertuko ere jakinaraztea gomendatzen da, larrialdia sufritzen ari den horren ordez, 112ra ingurukoek deitu beharko balute ere.

Larrialdi zerbitzuek izan duten hutsunea arintzeko

Honekin orain arte baserri sakabanatuak aurkitzeko larrialdi zerbitzuek izandako hutsuneak edo ezinak arintzea da bilatzen den onura. «Ea hala den eta ea denok erabiltzera ohitzen garen gure helpbidea kodea» diote Udaletako arduradunek.

«Leku zoragarriak dira bizitzeko, baina, paisai horren barruan, gure baserriak mendietan modu sakabanatuan egoteak baditu eragozpenak ere, larrialdi egoeretan esaterako». ||

EREÑOTZU MENDI LASTERKETA

Auzotarrei bilera deia, biharko

Gerturazten ari da Ereñotzuko Mendi Lasterketa, eta horri begira, bilera deia egin die auzotarrei, antolakuntza taldeak. Bihar izango da, ostegunean, arratsaldeko 19:00etan Auzo Etxeko aretoan. Bertan ariko dira, lasterketaren eguneko ekintzei edota boluntarioen antolaketari buruz, besteak beste. Auzotar guztiei luzatu diete gonbitea, bertaratzeko; eta bereziki, aurreko urteotan boluntario lanetan aritu direnei, eta aurtan ere laguntzeko prest daudenei. ||

HERNANI ANTZERKIA

'Pinoccio' larunbatean, haurrentzat

Larunbatean bi antzerki daude Hernanin. *Pinoccio* eta *Lur-ikara kabaret*. Lehenengoa Biterin, 12:00etan, 6 urtetik gorakoentzat eta bigarrena Plaza Berri 13:00etan. *Pinoccio* La Baldufa antzerki taldearen obra da eta euskaraz antzeztuko da. *Lur-ikara kabaret* Mugarik gabe eta Kooperazio taldeak antolatzen dute eta euria egin ezkerro Atsegindegian eskainiko dute. ||

HERNANI UDALA

Kiroldegia eta Biteri gaur, itxita

Nazioarteko Langileen Eguna dela eta Hernaniko kiroldegia eta Biteri kultur etxea itxita egongo dira egun guztian zehar. ||

HERNANI MUS TXAPELKETA

Bihar lau partida, Xalapartan

Xalapartako Mus Txapelketa martxan da eta ostegunero jokatuko dira partidak. Bihar lau jokatuko dira guztira: Txema-Goyo/Gorrotxa II-Gorrotxa III, Xabi-Manu/Ramón-Peli, Josemi-Lola/Jesús-Arrieta eta Iñaki-Martín/Koldo-Olatz. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



IRAGARKI MERKEAK

Hernaniko Etxeberri auzoan harategia duen janari denda bat alokatzen edo saltzen da jubilaioa dela eta. Interesatuak **Deitu: 689 290 923**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

